


Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko azaroaren 8a

*



Jose Maria Jimeno Jurio, Iruñeko bere etxean.

JOXE LACALLE


'Euskararen Historia Nafarroan'

■ *Euskararen Historia Nafarroan* izena eramango duen liburua kaleratuko du heldu den urtean Jose Maria Jimeno Jurio ikerle artaxonarrak. Lana abendurako bukatu nahi zuen, baina espero baino gehiago atzeratu zaio dena, material asko eta oso barreatuta ari delako aztertzen. Asmoa da argitaratu diren testu guztiak bildu eta

linguae navarrorum-en atzerakada eta bilakaera hobeto ulertzeko zenbait ardatz aurkitzea. Jimeno Juriok dioenez, XVIII. mendea izan zen erabakigarriena azken garaian izan den galtze prozesuaren barruan, orduan ezabatu zelako euskara nafar guztien hizkuntza zen ustea. ■

Bi hormetara

JOSETXO AZKONA



Behar baino abiadura azkarrago hartzeagatik, bihurtzeko irten eta, tarteka lurra ukituz eta marteka airetik joanda, herio izan genuen kide instant batez, SEAT 600 harek bide bazterreko ezponda jo zuen arteino. Biharamunean garabikoak esan zigenez, hamabi metroko jauzi eroa egina genuen autoaren barrenean, udako goizaldearen itzalean, urdaila eta burua kubataz dexente zigorturik, justu lehenengo ileak bizarrean nabarmen agertzen zitzaizkigun garaian. Hiru adiskide ginen, eta, zorionez, zauri arin batzuk baino ez genituen jasan. Adurrak ongi jokatu zuen gurekin. Egun hartaz gero, maiz gertatu izan zait, halabeharrez edo nahita, istripu lekutik pasatzea, Espartza ingurutik, alegia. Eta aldioro, gau hartan bizi izandakoak gogoetarako bide ematen dit gertatu zitzaizgunaz eta gerta zitekeenaz luze aritzeko. Nola heriotza bertatik bertara iragaten antzeman nuen, gu ez-ikusiarrena eginez. Nolako bizimodua izan neza-

Geografiaz haraindi

keen egun baldin eta zerbait larriak suertatu izan balitzaigu bai niri edo nire adiskideei. Istripuan somatu nituen bezala —eta ez nintzen bakarra izan—, oraindik ere geldo-geldo pasatzen dira makal enborrak nire begien aurretik, abiadura motelako kamara batek geldotasunez pantailaratzen dituen antzera. Pentsatu nahi dut bidenabar, guztiok badugula gogoan, neurri batean edo bestean, errepidean edo beste edozein tokitan gertatua, antzeko eskarmentu bat. Halakoetan, geografia fisikoan azaltzen diren toki izenek badute euren adierazi objetiboaren gainetik oso norberarena den esanahi berezia, hil edo biziko dermioak direla esango nuke. Alderantziz gertatzen da, ordea, gertakizuna pozkariozkoa denean. Orduan, zorioneko puntu batera garamatza geografiak, fisikoki bertan ez egon arren. Anitz dira beraz, izen geografikoek gure baitan sortarazten dizkiguten sententzioak. Badira batzuk, esate batera, adi-

tze edo pentsatze hutsarekin hondamenaren, giza sufrikarioaren irudia berehala dakarkigutenak. Oparoa da mende hau geografia honi dagokionean: Verdún, Gernika, Auschwitz, Hiroshima, Siberia, Sarajevo... (zerrenda luza daiteke bakoitzaren ikusmiraren arabera). Oro har, ahaztuxeak ditugu horrenbeste tragediaren zioak, ez dugu interes handirik ere erakusten gisakorik gerta ez dadin, harri berean behaztopa egitea omen da Historiak duen zentzu bakarra. Argazki eta dokumentaletan eder erakutsi dizkigute; paisaia berde eta zabalak, landare eta animalia ikusgarriak, hango gizakumeen ohitura bitxiak... Postal polita, duda gabe. Oso bestelako argazki eta dokumentaletan ikusten ditugu orain: Laku Handietan barrena dabilta, noraezean, dermio seguru baten bila, ohi bezala, gizaseme bakan batzuen botere goseak bulkatutik, hango geografiaren makal enborren kontra multzoka hiltzen diren bitartean.

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Burlata: Exkixu eta Parabellum taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, hilak zortzi, gaueko 23:00etatik aurrera, herriko gaztetxean. Kontzerturako sarrerak 500 pezetan (20 libera) izanen dira salgai.

Zangoza: Euskal Folk jaialdia antolatu du herriko ikastolak heldu den iganderako, hilak 10. Eguerdiko 12:00etan trikitixa izanen da, 13:00etan haurrentzako antzerkia, Arratsaldeko 17:00etan berriro ere trikitixa, 17:30etan Txanbela folk taldearen kontzertua, eta 18:00etan ikastolako dantzari txikien emanaldia.

Juan Carlos Perezek *Hau berual* izeneko kontzertua eskainiko du azaroaren 12an, ilunabarreko 20:00etan, Gaiarre antzokian, eta Iruñeko Udalaren eskutik.

ANTZERKIA

Iruñea: Behi bis taldeak *Mugamundi* haurrentzako antzezlanaren taularatuko du bihar, hilak bederatzia. Gaiarre antzokian, Iruñeko Udalaren eskutik.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Xabier Idoateren eta Adolfo Ramirez Escuderoren margoak Pintzel galerian ikusgai izanen dira hilaren 29ra arte.

Iruñea: Jose Manuel Garcia Legideren margoak Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartean (Al-dapa kalea, 5) ikusgai izanen dira azaroaren 23ra arte, goizetan 11:30etatik 13:30etara, eta 18:00etatik 21:00etara.

Zangoza: *Eusko Ikaskuntza: iragana, oraina eta geroa* erakusketa ikusgai izanen da hilaren 13ra arte.

LEHIAKETAK / IKASTAROAK

Iruñea: Aisialdi begiraleentzako ikastaroa antolatu du Urtxitza aisialdi eskolak, Nafarroako Kirol eta Gaztedi institutuaren laguntzaz. Ikastaroa azaroaren bederatzian hasi, eta apirilaren 26an amaituko da. Informazio gehiago jasotzeko dei 211478 telefono zenbakira.

Zizur Nagusia: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko da.

IRTEERAK

Bertiz: Heldu den igandean, hilak 10, Bidasoako trenbidea ezagutzeko ateraldia antolatu du Bertizko Turismo Partzuergoak: Oronoztik Arraiotzera joan eta itzuli, zazpi kilometro orotara. Horretan parte hartu nahi dutenek goizeko 9:00etan Bertizko Turismo Bulegoan izanen dute zita.

nafar kronika

Patxi Larrion

Idatzia eta solasa


Estatu mailan idiaren eraman handiaz jabetu diren honetan tigre ehizan aritzeko tenorea heldu zaigu. Bi aste igaro dira, zutabe honetan, nafar idazleen sormena hizpide izan genuenetik. Iazko literatur uzta ikusirik zaila bazirudien ere, aurtengoan goiari eutsi diogu. Itxaropentsu izateko arrazoiak egon badaude. Irakurleak ere ez dira urri. Gainera Erresuma Zaharreko mugetatik kanpo ere nolabaiteko onarpena jaso da. Alta, ez da harresirik falta harresirik gabekoa omen den gure literaturan.

Gizartean harresiek tinko diraute. Larunbat honetako manifestaldiaren aurreko giro hotza lekuko. Elkarrizketa mugimenduak alimaleko lana egina du bere mezua nafar

gizarteari helarazteko.

Harresirik gabeko Nafarroa aldarrikatuz kezka hori gure gizartearengan piztu nahi izan dute. Nago, kezka hori egon bada goela, eta gure politikagintzan azken urteotan bizi diren fenomenoek ondorio horretara garamatzatela. Baina, aldi berean, ez du ezertan laguntzen edozein eztabaida harilkatzeko pairatzen dugun foro eskasiak. Horiek eratzeko moduari konponbidea ematen ez zaion bitartean solasaren beharra non-nahai sumatzen dugu. Errege eta erreginen garaian, ez zetozen bat harresien barruko zein kanpoko solasa eta idatzia. Egun ere, idatziak gehinetan bestelako xedeak ditu. Bizkitartean, arian ari, amorezko pena baino gehiago, bizi puskak gurean.

ahaztu gabe!



SOLDADUTZARI BURUZKO INFORMAZIOA

Iruñea: Armadak soldadutzara joateko tenorea heldu zaizula dioen eskutitza igorri dizu, eta zuk ez dakizu zer egin. Bada, hurbil zaitez Gaztedi etxera; izan ere, «mundu justuago batekiko konpromezua bultzatuz, baina eskaera guztiei begikotasunez erantzunez», Gaztedi etxean soldadutzari buruzko informazio bulegoa zabalik izanen da azaroaren zehar, astelehenean ostiralera, eta arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00etara. Bertan soldadutza egin nahi ez bduzu har ditzakezun bi jarrera ezberdinei buruzko informazio zehatza jasotzerik izanen duzu: intsumisioa (izapide burokratikoak, kontu legalak, intsumisioaren zergatia, etorriko diren aldaketan perspektibak...) eta kontzientzi eragozpena (epeak, izapide burokratikoak, zenbait kontu legalen berri ematea...). Horretaz landara, antimilitarismoaren inguruko informazio orokorra ere eskainiko dizute. Gaztedi etxeak interesa duten gazte eta elkarte guztiei bulegora hurbiltzeko gonbita egiten die.

elkarri



asteko pertsonaiak



Pedro Mari Zabalza
Osasunako entrenatzailea

■ Pedro Mari Zabalza Osasunako aulkian, eta Reala aurrez aurre. Osasunazale bati baino gehiagori aspaldiko kontuak ekarriko zizkion burura joan den astearteko Kopa norgehiagokak, Osasunak Lehen Mailan jokatzen zuenekoak. Dena dela, garai hobeak gogoratzeko aukera izan bazen ere, inor gutxi itzuliko zen etxera triste eta burumakur. Izan ere, aspaldiko partez, joko ona, bizia eta emozioz beterikoa gozatu ahal izan zen Sadar futbol zelaian. Hori gutxi bailitzen, Osasunak bat eta huts irabazi zuen. Pedro Mari Zabalza itzuli da, eta, aspaldiko oroitzen ezezik, aspaldiko jokatze modua ere ekarri du Sadarrera: kemena, indarra, abidura... Zabalzaren eskutik, itxaropena heldu da Iruñeko futbolzaleengana.



Jon Alonso
Idazlea

■ Jon Alonsoren *Idiaren eraman handia* (Euskaltzaindia-BBK, 1995) saiakera liburua Espainiako Sari Nazionalen finalistaren artean dago. 1994an Mikel Zarate Saria eskuratu zuen lan horren bitartez. Literaturan dagoen sormen lana, orijinaltasuna, jainua eta antzeko gaiak dira aztergai *Idiaren eraman handia*-n, urte askotako gogoeten fruitua den idazlanean. Inspirazioa baino gehiago lana dela funtsezkoa azaltzen du Alonsok liburuaren laburpen gisa, inspirazioa ipurdian dagoela, lanean, idazmakinarean aurrean sartutako orduetan, alegia. *Idiaren eraman handia* idazten emandako ordu andanaren ordainez Alonsok Sari Nazionala jasoko duen ala ez, heldu den ostegunean argituko da, epaimahaiak epaia karrikaratu duen egunean.

a di!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenean ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10:00etatik 12:00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20:00etatik 22:00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazken zehar 13:30etatik 14:00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazken zehar, 12:20etatik 12:35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Barañain

Txotxongilo zikloa hil honetan

Erakusketa batek mundu osoko panpinak paratuko ditu Kultur Etxean

Nepalgoak eta Italiakoak, Rajastangoak (India) eta Javakoak, gaur egungoak eta zaharrak, mota guztietako txotxongiloak daude ikusgai astearretik Barañaingo Kultur Etxean, hil honetarako prestatu den zikloaren barruan. Erakusketa ezezik, txotxongiloak taulagainean ikusteko aukera ere izango da, horien artean euskarazko hiru emanaldi.

Alberto Barandiaran / Iruñea

ANTZERKIAREN atal honi buruz iaz antolatu zen egitarauaren ondotik dator txotxongiloaren ziklo berri hau Barañainera. Erakusketa, antzerki emanaldiak eta txotxongiloak egiteko tailerrak izan ziren 1995ean, eta izandako arrakastaren ondotik aurten esperientziarekin jarraitzeko erabakia hartu da. Iazko erakusketan Nafarroako hamaika antzerki talde eta Madrilgo Maese Villarejo taldea egon ziren, eta Barañainen urte hartan egindako erakusketen artean erantzun onena harek izan zuen. Halaber, lau antzerki emanaldi programatu ziren, eta Kataluniako bi talde, Txekiako bat eta konpainia nafar bat egon ziren. Euskaraz eta gaztelaniaz egin ziren tallerre-

tara 17 ikaslek eman zuten izena.

Aurten aldaketak dauzka programazioak. Alde batetik, Corrado Masacci italiarrak duen bilduma partikularra ikusi ahal izango da, eta bisita gidatuak ere egin ahal izango dira txotxongiloen historia txikia irudikatzen duen museo honetan barna. Bestetik, antzerki programazioaren barruan zazpi talde ariko dira, sei Euskal Herrikoak eta Kataluniako konpainia.

Antzerki zikloari buruz ere bada zer esanik, interesgarria izango direlako oso Barañaineraino hurbilduko diren taldeak. Zikloa atzo hasi zen Kataluniako La Fanfarra taldeak aurkeztu zuen *Caramante* lanarekin, eta heldu den asteartean, hilak 12, Txirritrak taldeak *Basoko sasietan gose* lana aurkeztuko du, euskaraz. Azeri maltzur eta otso galztoaren abentura eta desbenturak dira ikuskizun honen oinarri, bi osagalz giroturik: gosea eta umore eskatologikoa. Azaroaren 14an Iruñeko Gus Marionetak aurkeztuko du *Marrubiaren Printzesa* erdarazko bertsioan, eta azaroaren 19an Kukubiltxo talde bizkaitar famatuak *Behin bazen* lana plazaratuko du. Resurreccion Maria Azkuek jasotako bi ipuin kontatuko dituzte Kukubiltxokoek.

Azaroaren 21ean *Piratas* Gabea taldearen lana aurkeztuko da, eta hilaren azken astean, 26an, *Pinotxo 2000* izeneko lana ikusi ahal izango da Gorakada-Paparotek taldearen eskutik. X

Iruñea

Azaroan zehar abesbatzen kontzertuak izanen dira

Bederatzi abesbatza ariko dira beste hainbeste lekutan

Erredakzioa / Iruñea

IRUÑEKO Udalak Nafarroako Abesbatzen Elkartearen laguntzarekin antolatuta, *Ahotsak udazkenean* izenburupean herrialdeko bederatzi abesbatzak kontzertuak eskainiko dituzte hiriburuko eliza eta txokoetan. Abesbatzen kontzertuak hilabete honetan izanen dira, eta folklorea ezezik eliz musika eta musika profanoa entzuteko parada izanen dute iruindarrek.

Emanaldiak atzo hasi ziren eta hilaren 29an bukatuko dira. Hurrengo kontzertua datorren asteartean, azaroak 12, izanen da San Nicolas elizan. Irubide abesbatzak lehenengo partean J. Haydnen *Missa brevis St. Joannis de deo* meza abestuko du, eta bigarrenean, besteak beste, Mozarten *Laudate dominum*. Heldu den astean, azaroaren 15ean, Aizaga ganbara abesbatzak Kasino berrian kantatuko du. Beste obra batzuen artean, A. Banchierren *Contrapunto bestiale ala-*

me, Vic-Nessen Sur le pont, eta J. Bustoren *Axuri beltza* obrak interpretatuko dituzte.

Emanaldiek azaroaren 19an jarraituko dute Santo Tomas abesbatzak San Antonio elizan eskainiko duen kontzertuarekin. Besteak beste, Brahms-en *Ver gesange* eta Brittenen *Friday afternoon* obrak kantatuko dituzte. Handik bi egunera, azaroaren 21ean, Sine Nomine abesbatzaren txanda izanen da. San Fermin kaperan Stravinskiren *Ave Maria* eta Etxetxiaren *Cuatro canciones sobre textos de Teobaldo I*, besteak beste. Iruñeko ganbara abesbatza azaroaren 24an ariko da Gaiarre antzokian, eta San Fermin abesbatza 26an Dominikoen elizan. Besteak beste L. Ondarraren *Lo-kantak* eta F. Aire Xalbadoren *Pakeari* abestiak kantatuko dituzte. Kontzertuak azaroaren 29an akituko dira bi emanaldirekin. Etxarri-Aranazko abesbatzak San Miguel elizan kantatuko du, eta San Jose koruak San Saturnino elizan. X



Mundu osoko txotxongiloak ikusi ahal izango dira.

Irurtzun

EGUNKARIA



'Txiskola'-n garaile

Patxi Galarza, Iñaki Arroki eta Jon Iribarrenek osaturiko hirukotea garaile atera da urriaren 28an ETBn eginiko *Txiskola* saioan, Oñati herriari irabaziz txiste ligako saio honetan. Urriaren 29an berriro joan ziren ETBko estudioetara eta grabatu zuten saioa abenduaren 23an eskainiko dute. Santo Tomas eta txistor gaiak ukitu dituzte horretan. Beraiekin batera Irurtzongo eta Lekunberriko 50 lagun joan ziren animatzera eta programan parte hartzera. Esan behar da Irurtzongo Euskara Taldeak lagundu diela txisteak eta antzerkia prestatzen.

nafarroa harresirik gabeko etorkizuna

manifestazioa azaroaren 9a, larunbata autobus geltokia 17.30h. Iruña

nafarrok dugu hitza

elkarri

Xanti Begiristain

«Do re mi, hanka oker hori, fa, so, la, zuzendu zaiola».

■ Goiburu honetan ageri den esaera ez dakit nongoa den, baina jakinarazi ahal dizuedana zera da, Goizuetako koinatuarengandik ikasi nuela.

Baina goazen harira. Hemen ez dut hasi behar hitz egiten solfeoari buruz, baizik eta Iruñeko Pablo Sarasate musika orkestraren gainean, eta ez pentsa zioa denik kontzerturen bat edota gai musikalen bat, oso bestelakoa baino.

Komunikabideen albigestegiak entzun baldin badituzue, hain segur adituko zenuten Pablo Sarasate Orkestrako musikariak egunen batean atera zirela kalera musika jotzera jostailuzko instrumentuekin, eta gainera, gaizki ez badut gogoratzten, uste dut aritu zirela jotzen Parlamentu edota

radumen bat. Gauzak, beraz, ez daude batere lasai, giroa gori-gori nabari da.

Neroni, egia esan, dezente samar harritu nau horrelako jokabidea ikusteak Administrazioaren aldetik. Izan ere, orain arte, guztiz ohituta eduki baikaitzute muzin egiten beste eskaera mota batzuei, esate baterako: euskara, euskal kultura, Euskal Herriaren kutsua, intsumisioa, ezkerria eta besté hainbat gauza, beti antzeko aitzakiak ateraz, alegia, «usain politikoa dutela», «hiltzaileak babesten dituztela e.a.».

Baina jaun-andreak, Pablo Sarasate Orkestraren kasuan zer aitzakia eta ez bai jarri ahal zuten? Musika ez al da ba hizkuntza unibertsala eta



Nafarroako Gobernu edo Diputazioaren aurrean. Oraindik ez dut esan, baina oso ongi suposa dezakezen bezala ez zuten jardun musika jotzen apetak bultzatuta, baizik eta protesta moduan. Izan ere, Pablo Sarasate Orkestrako musikariak aspalditik ari baitira kexak eta desadostasunak adierazten, Gobernutik eta Administrazioetik nonbait ez zutelako jasotzen nahi luketen arreta eta adeitasun guztia.

Esan beharra dago delako orkestra horren partaideak aspaldi honetan behin eta berriz eskatzen ari direla soldata egokiagoa, lokal hobea, eta batez ere, entzunak izan daitezela arduradun nagusien aldetik.

Beno ba, ikusi ahal izan duzue, orain arte behintzat ez diete batere jaramonik egin, itsu eta gormutuak bailiren jokatu dute erantzukizun dutenek.

Aurreko egunetan Markotegi jaunak esan omen die hartuko dituela bere bulegoan, baina ez musikariak berberak edo beren ordezkariak, baizik eta Pablo Sarasate orkestraren fundazioko ardu-

gainera basapiztiak mantsotzen dituen? Bestalde, orain arte behinik behin, musikariak oso modu zibilizatu, otzan eta gizalegezko aritu dira eskaera eta mobilizapenak egiten. Hortaz, zeri izan diote beldurra ba Markotegik eta bere lagunek? Nik ez dut ongi ulertzen. Beharbada, arrazoiren bat izan liteke, benetan, Markotegi eta beratarrak ez direla agertu nahi duten bezain kulturazaleak. Sarasate hitza euskalduna delako behintzat ez da izanen, ez da hala? Ongi begiratuta ere, musikariak ez dute kutsu politiko susmagarri handirik. Gutxiago oraindik gogoan hartzen badugu musikari horietako batzuk, edo asko agian, kanpotarrak eta atzerritarrak izan direla. Besterik ere, neronek behinik behin musika tresnei ez diet inolako arma eta iskilu antzik ateratzen. Beraz, Markotegik eta bere ingurukoek jakinen dute zergatik kostatzen zaien horrenbeste denbora ematen halako erantzun kaskar eta eskasa.

Eta bukatzeko solfeo ariketa motz eta erraz bat: «Do re mi, Markotegiren eskuin hanka oker hori, fa sol la, oraindik zuzendu ez zaiola!».

Klasiko bitxi, arrot klasiko

Joxemiel Bidador

Alhabe ziberotarraren uskal lanak (eta batto)

■ Jean Batiste Alhabe kar handiko euskaltzalea genuen zantzarik gabe. Hegoaldean hagitz ezaguna gerta ez izan arren, hor genuen On Resurrezzion Maria Azkue lekeitiarraren laguntzaila hiztegi gintza lanetan. Euskaltzaleen Biltzarreko kidea eta Urdinarbeo erreto ondo zen mauletarrau 1911.ean itzali zitzaizgun, alabaina orduko hiru ziren largatu zitzaizgun idazlanak, hiztegi gintzarako arras interesgarriak izateagatik, hitz eli zoroak baino hagitz gehiago ditugu ordea, gaiarekin batera azalgarri zekartzan hamaika iruzkin goxoak zirela bide.

Denboran ageri lehendabizikoa Baionako Jacques Lafitte karrikako 9. zenbakian egoitza zuen Lamagnèren etxean inprimarazi zuen 1900. urtean. *Ciberouko botanika edo lantharen jakitaitia* izenburu daroana fite irakurtzeko horietakoa genuke, ertsiki oretutako idazki mamitsua izan bada ere. 24 orrialdetan barrena Ziberuan kausi daitezkeen landaren berri zekarkigun. Frantsesezko hitzen ondoan xubererazko oradainak doaie, eta hainbatetan ere, azalpen taumaturgikoak, izenburuan berean dioen jakitaitia bermagarri. Jakintza zaharraren galtze dollarrak bazuen sakonki arrenkuratzen gure apez ziberotarra nonbait: «Bai bada jakitate hori: bena gerouago chipitzenago ari da. Hitzzen erdiak ez dira ezaguturik orai berogei ourthez peko gientez... Hitz horiek oro zaharen ahotik elkhirik dira. Bilzaliak ez tu merechimenturik biltzeko pazentzia baicik. Ouste du badela orano haboro biltzeko nahi bada baden hanich ere galdurik». Gure biltzaile umil hantuts eta oro pairamen haundiko igurikitzaileak etzituen hitzak bere berean jaso besterik gabe, deituen zergatia nahiz erabilgarritasuna islatzen ere ahalegindu baitzen: «Uskalduna ohartzale da zerk houn edo gaitz egin deron, eta halaz izendatu dutu lantharik; batal chichari belhara, odol belhar, arestelu belhara. Bestik beren itchuretatik: acheri buztana, idi mihia, gatu bichara, zombait beren lilitzeko sazoutik: bedats lilia, domesanthore lilia. Eta orano edieten diren lekhitik: komentu lilia, andere mahatsa...». Frantserazko sarrerak alfatikoki datoz, eta guztietan lehenengoa absynthe dugu, hau da, chichari belhara: «Chichai jaouzalia karota burutia bazalako lanthare bat da, urin borthiz bateki; liliak uduri du boutou bat. Likur bat egiten da chicharik jaouzerazten dutiana. Ostoueki egin kataplazma, haouren zabelan gagnen, etchekiz, ehaiten deitze chichariak».

Guziarekin den dena eztago harren gainean egina, eta sabela lasaitzeko balio duten *meliza* eta *ahamenta* aukeran hartu zituen Maulekoak: «Meliza lanthare balioza da estomakeko minetan, burhungurian, ingocherietan, eta berheziki zaiguen ematzeko. Goiz oroz gomendaturik da edatia jende zahar ginez, apoplexiaren ahiltzeko, bai eta nekez formatzen dien persouna gazter... Ahamenta lantharen ballousenatarik ere. Meliza bezala adela-turik den tizanak azkartzen du estomaka, dijestizionia eginazten, ikharak eta barne aizik ahiltzen, begitharte eri izanak chichariak ehaiten, unhuder ezniá igan erazten, ahamenta ostoz belara hertez buruko mina ampletzen». Ezta guti gero!

Gure edari maitea ekointzeko beharrezko den txinbioaren berri ere nola etzuen eman behar. Dakusagun: «Prunelietan Elorri beltza edo basa ahana: liliaeki egin tizanak purgatzan du ezitiki, estomaka azkartzen. Horen fruta zohitiaeki egiten da aigardent hoberenatarik hirour departamedutan». Alde honetan gaudela irakur dezagun ardantzeko zuhaskei buruz ere mintzo zena: «Athena: subertiak edo melgak dira: iskiribeta, korbua, klaberia, kamalaoua, erle mahatza, bordeleza, charchela, klamadana, tanata, doucheta, chocho mahatsa, basa mahatsa. Hilabetez barurik mahatz jatiak sendotzen du gogoreia». Ezetz asmatu zein den gure garnatxa edo tenpranilloa.

Eta gaurkoz ahitzeko, hona hemen argibide ezin beharrezkoagoa ziza pozointsurik jan izan ezkerro: «Champignons non comestibles edo lehenronduk: Dohakabia dianak jateko, ezagutzen du 6 edo 8 edo 10 oren buruko, buruko min, burhunguru, sabeleko min, goiti eta behera. Barbera jiten den artin, egin ahalak egin oro erendatzeko, bi erhi zuntzur zolala heltuz edo gingilla luma batez gillikitatzek: edo orano taza bat edo biga olio ephel gaintitzez. Ez pada hola libratzen purga bat har; edo ezin bada purga labamendu batetan har. Noulazpait libratu ondoun dateke balious kafia edo barberaren eremediourak».



Euskadiko taldekako ligako lehenengo jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 3an jokatu.

Felipe Arnold (Bilboko Peña Rey Ardid), 2.220 ELOkoa — Xanbier Abaurrea (Iruñeko Arrano Elkarte), 2.375 ELOkoa.

1.e4,e5; 2.Zf3,Zc6; 3.Ac4,Ac5; 4.c3,Zf6; 5.d4,d4; 6.d4,Ab4 xa; 7.Zc3,d6; 8.d5,Ze5.

Huts galanta. Alfila zalduarekin trukatzeko beharrezkoa zen.

9.Da4 xa, Dd7; 10.Db4, Zf3 xa; 11.f3,0-0;

12. Ae3, b6; 13.0-0-0, Ab7; 14. hG-g1, Eh8; 15.Ae2, aG-c8; 16. Dd4, c5; 17.c6, Dc6.

Ikus kuadroa. Txuriek jokaldi suntsikorra dute eta ez dute igarotzen utziko.

18.Gg7.

Janez gero, bi jokalditan mate (Gg8 eta Df6).

18...., d5. 19.Ab5, De6. 20.dG-g1, h5; 21. Ad7, Gc3 xa; 22. Dc3, Zd7; 23. Gg8 xa.

Bukaera. Beltzek ez zuten ongi jokatu, baina txuriek kalitate distirak erakutsi zituzten.



Arrotxapea hobea nahi dute auzokideek

Duela bi asteko manifestazioaren ondoren, Arrotxapeako auzotarrak egunero mobilizatzeko prest daude

Duela bi aste manifestazioa egin zuten Arrotxapeako auzokideek bizitzeko egokia den eta etorkizuna duen auzoa nahi dutela aldarrikatzeko. Euren ustez, Iruñeko Udalak bazter utzi ditu, eta are gehiago, ghetto bihurtzeko zorian daude. Hori dela eta, auzoko arazoak aztertze hainbat batzorde sortu dituzte azken urtean, auzokideen artean elkarte indartsu eta dinamikoak sortzeko asmoz.

Edurne Elizondo / Iruñea



Etxebizitzaren arazoa da Arrotxapeako bizilagunak gehien kezkatzen dituztenetako bat.

JOXE LACALLE



Aldaz etxearen ingurukoa da droga esparru kezkarrienetako.

JOXE LACALLE

Udal zergak ez ordaintzeko prest

ARROTXAPEAKO auzokideen-tzat Iruñeko Udalaren hitzak, jada, ez dira nahikoa, ekintzak nahi dituzte, euren arazoentzat benetako konponbideak. Eta hori aldarrikatzeko, urriaren 26an egin zuten lehenengo protestaldia. Antolatzailen arabera 2.000 auzokide hurbildu zen Iruñeko udaletxeko plazara, hiriko agintari euren kezkuak azaltzeko. Martin Aizpun eta Iñaki Rey Arrotxapeako batzorde ezberdinetako kideak Joaquín Pascal zinegotziarekin mintzatu

ziren, baina ez ziren oso kontent atera, «beti bezala, hitzak baino ez baitzizkigu eskaini Iruñeko Udalak». Manifestaldia astero bezala asteartean egin batzorde ezberdinen arteko bileran aztertu zuten, hemendik aurrera jarraitu beharrek bidea erabakitzeko asmoz. Izan ere, ekintzaren ondotik iragarri zuten, manifestazio hori ez da Arrotxapeako auzokideek eginen duten bakarra: «Argi eta garbi azalduko dizkiogu gauzak Udaletxeari. Guretzat lehenasuna

duten arazoak zeintzuk diren erran eta horiek konpontzeko epea emanen diogu. Erantzunik jasotzen ez badugu, egunero mobilizazioak egiteko prest gaude». Manifestazioak ez zizkiz, badira auzokideek esku artean dituzten bestelako protesta ekintza motak ere. Martin Aizpunek adierazi digunez, udal zergak ez ordaintzeko modua ere aztertzen ari dira, auzoko arazoak konpontzen ez dituzten bitartean. «Gure zerga guztiak ordaintzen ditugu denek be-

zala baina diru hori ez dute gure auzoan inbertitzen inolaz ere». Manifestazio ondoko asteartean bilera egin behar zuten Arrotxapeako batzorde ezberdinetako eta Auzo Elkarteko kideek, larunbateko manifestazioa baloratu eta hemendik aurrera hartu beharreko neurriak aztertze. Azkenean, baina, bertan behera gelditu zen astearteko bilera, batzordeek denbora gehiago eskatu baitzuten euren artean hitz egiteko. Atzo ziren biltzekoak berriro. X

«Iruñeko Udalaren urtzikeriaren erruz ghetto bihurtzen ari da Arrotxapea eta hori ezin dugu onartu», azpimarratu du Martin Aizpunek

Aizpunen irudikoz batzordeak eratzeko orduan. «Jende askok parte hartu du. Auzoa jada ez dago lotan, esnatu da eta auzokideak konturatu dira zerbait nahi badugu horren alde borroka egin behar dugula. Mugimendu berria sortu da».

Etxebizitza, droga eta urbanismoa arazoak • «Auzoa hankaz gora dago, guztiok dauzkagu arazoak». Horregatik, batzordeak osatu ezezik, bestelako egitasmoak ere abian jarri nahi dituzte Arrotxapeako auzokideek. Haste, batzorde bakoitzeko lagun batek edo bik osatuko dituzten taldeak eratu nahi dituzte, bakoitzak auzoko arazo zehatz bat azter dezan. Etxebizitzaren arazo izanen da aztertuko duten gaietarikoa bat, garrantzitsuenetarikoa baita Arrotxapeako kideentzat, beste hainbatekin batera.

Auzokideen Elkarteak, bestalde, Iruñeko Udalean aurkezteko larrialdi zerrenda bat egin du, auzokideen ustez lehenasuna duten gaiak alpatuz. Virgen del Rioko batzordearentzat, adibidez, Iturriotzeaga plazaren urbanizazioa da arazo nagusienerikoa bat. Gainera, Martin Aizpun batzorde honetako kideak erran digunez, «droga oso arazo larria da auzoko eremu honetan».

Etxebizitza batzordearentzat, noski, arazo honek du lehenasuna. Aizpunek azaldu duenez, gai honi dagokionez «irizpide bateratuak erabil ditzaten nahi dugu». Izan ere, Caritas elkarteak egin ikerketaren arabera, Arrotxapeako familien % 21ek dute mota bateko edo besteko gizarte arazoren bat; gainontzeko auzoetan, berriz, % 4koa da kopuru hori, Aizpunek jakinarazi digunez.

Santa Engrazia batzordekoek, bestalde, jada esleitutako obrak egiten hasteko eskatzen dute. Beste lekuetan bezala, droga ere arazo larria da bertan. Martin Aizpunen ustez, auzoko zati hau «ghetto bihurtu da jada». Gai-entzatz lokalak eskatzen dituen batzordea ere badago Arrotxapean. Arrotxapea Zaharreko batzordeak, berriz, Aldaz etxearen arazo konpon ditzaten eskatu die Udaleko arduradunei. Auzokideen Elkarteak, azkenik, elkarte indartsu eta bateratua sortzeko deia egin die batzorde guztiei. X

* ◆Yayo Salegi◆ Pedagogo

«Material ugari egon arren, ez dago metodo zehatzik haurraren berreziketarako»

Yayo Salegi pedagogo altsasuarrak irakurtzen eta idazten zailtasunak dituzten haurrei egokituta euskaraz egin den lehenengo materiala, 'Hizkuntza indartzeko kuadernoa izenekoa, kaleratu du Erein argitaletxearekin. Jakin badaki asko dagoela egiteko, baina bere lana dagoen hutsunea betetzeko lehen pausoa ere badela uste du.

Irene Arrizurieta / Iruñea

PEDAGOGO izanik Yayok lan honetan euskaraz umeen berreziketarako buruan zituen ideiak bateratu ditu. Lanaren nondik-norakoak ezezik, haurren heziketan sortzen diren arazoak ere izan ditugu mintzagai.

■ **Irakurtzen eta idazten dauden zailtasunei buruzko bibliografia ugaria bada ere, ez dago euskarazko material espezifikorik haurren berreziketarako, eta berrezitzailea ahalegin handia egitera behartuta dago materiala osatzeko. Huts hori betetzera dator zure lana?**

Bibliografia gehiena erdaraz egina dago eta euskaraz ez dago ezer. Dagoena da zuk itzulitakoa edo zuk prestatutakoa eta horrek sekulako lana eskatzen du. Gainera, haurraren egiten duzun lan guztia askotan galdu egiten da eta berriz hasi behar izaten da. Haurren gurasoekin, ikastolako irakasleekin eta orientatzaileekin harremanetan egotean beti materialik ez dagoelako kexua entzun diet. Euskara eta gaztelania erabat desberdinak dira eta dauden bibliografiak eta pautak gaztelaniarenak dira. Euskara-

rekin, ordea, beste bide batzuk jarraitu behar dira. Orain arte ez zegoen hiztegi lan bat egin dut.

■ **Hiru liburuk osatzen dute zure materiala. Nola landu duzu?**

Idea aspaldian nuen buruan eta orain bi urte hasi nintzen lantzen. Nahastua eta sailkatu gabea nuen lana Erein argitaletxekoei erakutsi nien. Helburua irakurtzen zailtasunak dituen ikasleari irakurle ona izateko laguntza ematea dela aintzat hartuz, heziketaren lehenengo zikloan -6, 7, 8 urte- dauden haurrentzat da. Berreziketara zuzendua dago, baina errefortzu bezala erabil daiteke haurraren irakur-idazketan ikasten ari denean. Ziklo horretan arazoak dituzten haurraren ere erabil daiteke. Lehenengo liburuan espazialki haurrak hitzak ezagutu beharko ditu; bigarrenean, silaben antolaketa automatikoa egitea lortu nahi da, eta hirugarrenean, bat-bateko ezagupen prozesua errazten da.

■ **Haurrak euskal hizkuntza irakurtzeko eta, bide batez, barnerratzeko egin duzu lana. Nola aplikatzen du pedagogoa?**

Diagnostiko batean oinarriturik haurraren arazoak modu batera edo bestera bideratzen dira. Hemen programaketa bat egiten da. Haurrak ahal duena emanen dizu, malgua izan behar duzu, haur bakoitza desberdina da eta bakoitzarekin zerbait berezi egin behar duzu. Horregatik ez dago metodorik. Material ugari dago eta erabiltzen duzu haurrak emandako adibideekin.

■ **Euskaraz ikasten duten haurraren egiten duzu lan. Beraz, bi hizkuntza eta askotan hiru barnerratzen dituzte batera. Besteek baino arazo gehiago izaten dituzte edo ez du zerikusirik?**

Orokorrean ez dute arazorik



Yayo Salegik Iruñean lan egiten duen kabinete psikopedagogikoan aurkitu genuen.

JOXE LACALLE

izaten eta haurrarentzat aberatsagoa da, haurrak bi erregistro erabiltzen ditu eta batetik besterako malgutasuna lortzea ona da. Era berean, bi hizkuntza ikasteen berri den zerbaiti aurre egitean badituzte beste baliabide batzuk. Perspektiba handiago izaten da hizkuntza bakarra izan beharrean bi ezagutzen dituelako, eta gauza bera modu askotan esan dezakeelako. Erregistro horren aldaketa egitean gaitasun gehiago du besteren ikuspuntua ikusteko, ulertzeko eta kritikatzeko.

■ **Zailtasunak izanik, non daude horien zergatiak?**

Ez dago arrazoi bakarria, asko baizik. Haurrak presio handiagoa du, egunean zehar gauza asko

egin behar izaten du eta horrek estuasuna sortarazten dio. Hau dela-eta, arazoak azaleratu egiten dira eta nabariagoak izaten. La-saitasunarekin arazoari aurre egin diezaijake, baina haurrak laguntza beharko du beti, nahiz eta saiatu presioak gainditu egiten duelako. Igartzen duzu potentzialki baduela maila bat, baina ez dela gauzatzen eta desoreka bat sortzen da. Bestalde, euska-

s o s l a i a

Yayo Salegi duela 30 urte sortu zen Altsasun. Pedagogia ikasketak Donostian egin zituen Zorroagako Psikologia eta Pedagogia fakultatean. Egun hiru psikologok osatzen duten Argibide kabinete psikopedagogikoan egiten du lan kolaboratzaile gisa 1991. urteaz geroztik. Haurrak zein helduak tratatzen dituzte.

◆ Duela gutxi argitaratu duen lanaren ildotik jarraitzeko asmoa du, erdaraz material ugari egon arren, euskaraz oraindik egiteko asko dagoelako. Salegi haurrak eskolan hizkuntza irakurtzeko eta, bide batez, barnerratzeko dituzten arazoak konpontzen saiatzen da; finean, haurraren berreziketa bideratzen du.

◆ Erein argitaletxearekin argitaratu duen Hizkuntza indartzeko kuadernoa lana ez da salmentan jarriko. Oraingoz, behintzat, ikastoletan eta D ere-dua irakasten duten ikastetxetan banatuko da, eta Nafarroako Gobernuari ere aurkezteko asmoa du.

raz ikasten dutenek badute beste zailtasun bat, hau da, euskara ez dutela ama hizkuntza. Hala ere, euskaraz arazoak dituzten haurrak gaztelaniaz ere izaten dituzte eta erabakia eredu aldaketa izaten da. Horrek ez du esan nahi arazoak konpontzen direnik, baizik eta hizkuntzaren zailtasuna kentzen diozula. Euskara berreskuratu nahian askotan arduraz guztia haurraren jartzen dugu eta ahaztu egiten dugu hezi egin behar direla, euskaldunak baino lehenago pertsonak izan behar dutela. Printzipioz ona eta nire ustez komenigarria den arren, hizkuntza ez da hezikuntzaren aurretik jarri behar.

«Ama hizkuntza euskara ez duen haurrak euskaraz ikasteen arazoak baditu, irtenbidea eredu aldaketa izaten da. Horrek ez du arazoa konpontzen, zailtasun bat kentzen baizik»

Euskara berreskuratu nahian askotan arduraz guztia haurraren jartzen dugu eta ahaztu egiten dugu hezi egin behar direla, euskaldunak baino lehenago pertsonak izan behar dutela

P A N E LUCRÁNDO

LIRIKAZ
HONATAGO
36

GAUR:

INFERNUA

Bizien infernua ez da etortzeko den zerbait; ba da bat, dagoeneko hemen dena, egunero bizi garen infernua, elkarrokin sortzen duguna. Hori ez sufritzeko bi modu daude.

Lehenbizikoa erreza da askorentzat: Hura onartzea eta haren zati bihurtzea, infernu bera ez ikusterdino.

Bigarrena arriskutsua da eta etengabeko arreta eta ikaskuntza eskatzen ditu: Infernuaren erdian nor eta zer ez den bilatu eta jakitea, eta hari lekua egin eta iraunaraztea.



Italo Calvino

ITZULPENA: Xabier Oñativia

ZALDI EROA